

## **ZINEMA ETA ZIENTZIA ZIKLOAREN SEIGARREN EDIZIOAK ZIENTZIARI MAITASUNA ERREIBINDIKATZEN DU URTARRILETIK MARTXOA BITARTERA PROIEKTATUKO DIREN HAMAR FILMEN BITARTEZ**

**Nazioartean ospea duten hainbat zientzialari eztabaidan ariko dira ikus-entzuleekin Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Donibane Lohitzunen egingo diren emanaldietan**

Zinema eta Zientzia zikloaren seigarren edizioak zientziari maitasuna erreibindikatzen du ostegun honetatik aurrera eta martxoaren amaiera arte proiektatuko diren hamar filmeren bitartez. Donostia International Physics Centerekin (DIPC) eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin elkarlanean, Euskadiko Filmategiak jarraitu nahi du kultura zinematografikoa eta zientifikoa transmititzen eta, horretarako, nazioartean ospea duen zientzialari batek hitz egingo du emanaldi bakoitzean. Tabakalera (Donostia), UPV/EHUko Bizkaia Aretoa-Sala Mitxelena (Bilbo), Artium Museoa (Gasteiz), Cines Golem (Iruñea) eta Le Sélect zinemak (Donibane Lohitzune) izango diran ziklo honetako proiektzioen egoitzak.

Gaur, Tabakalera (Donostia) egin den prentsaurrekoan parte hartu dute Joxean Fernandezek, Euskadiko Filmategiko zuzendariak, Ricardo Díez Muiñok (DIPCko zuzendaria), Edurne Ormazabalek (Tabakalerako zuzendari orokorra), Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde, Andoni Iturbek, eta baita ere Unibertsitate eta Ikerketa sailburuorde, Adolfo Morais Ezquerrok.

Fernandezek esan duenez, edizio honetan “zinemaren maitasunaz eta zientziaren maitasunaz” hitz egingo da. “Ziklo honen seigarren edizioa da. Beraz, 200 proiektiotik gora dira guztira, betiere ehun bat zientzialarik aurkeztuak, bost hiritan. Sei urte hauetan hitzaldiak, eta eskolentzako saioak ere programatu dira, eta, nire ustez, edizio hau bukatzerakoan guztira 20.000 ikusletik gorako kopuruan egongo gara. Horretan guztian zinemaren eta zientziaren maitasun handia dago”, erantsi du.

Bestalde, Díez Muiñok azpimarratu duenez, zientzia eta zinema gaur egungo kulturaren “funtsezko bi osagai dira”. “Zinemaren eta zientziaren arteko elkarizketa ikuspegi askotatik egiten da, eta gu haietariko batean zentratuko gara: begirada ezberdin, original bat emango diegu, zientziatik, film handi batzuei, eta, era berean, bildu eta aztertuko dugu nola begiratzen dion zinemak gertaera zientifikoari. Zientzialariak zinemara eramaten ditugu eta zientziara gerturatzen ditugu zinemazaleak. Bost urte hauetan zikloak izan duen ospeak eta arrakastak, hala ikus-entzuleen kopuruaren aldetik nola beste erakunde batzuek parte hartzeko izan duten interesaren aldetik neurtua, egindako apustua berretsi digu eta lagundu digu, berriz ere, oso egitarau erakargarria prestatzen”, esan du bukatzeko.

### **FILMAK**

Zinema eta Zientzia zikloak *Fire of Love* (Sara Dosa, 2022) proiektatuko du, beren arteko eta sumendienganako maitasunaz elkarri lotutako bi bolkanologo frantsesen esperientziei buruzko dokumental bat. Zientziari eta bere familiari dion maitasuna da baita ere *Madame Curie* (Mervyn LeRoy, 1943) filmaren protagonista, zeinak Nobel saria bi aldiz irabazitako poloniar zientzialariaren ikerketa-urteetan sakontzen baitu. *Drácula de Bram Stoker* (Francis F. Coppola, 1992) filmak ezinezko maitasun baten bila denboran zehar dabilen banpiroaren mitoa erakusten du. Egitarauaren osagarri dira orobat *El nombre de la rosa* (Jean-Jacques Annaud, 1986) eta *La herencia del viento* (Stanley Kramer, 1960) bezalako klasikoak, non beren protagonistak egiaren

aldeko maitasunaz aritzen baitira. Maitasun librea eskubide gisa da Tom Hanksek *Philadelphia* (Jonathan Demme, 1993) filmean defendatzen duena, eta koronel batek “estatubatuar gorputz fluidoei dien maitasuna” hondamen nuklear batean amaitzen da *¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú* (Stanley Kubrick, 1967) filmean.

John Nash zientzialari eta Nobel sariak eta matematikari zion maitasun obsesiboak inspiratu zuten *Una mente maravillosa* (Ron Howard, 2001), eta galdu denarekiko nostalgia da, bestalde, zinemako distopia handietako baten protagonista: *Cuando el destino nos alcance* (Richard Fleischer, 1973). Azkenean, zikloa amaitzeko, animalia, basatia eta munstroa izateari eginiko kantu bat, nola den *Marragoza* (Steven Spielberg, 1975). Pelikulak jatorrizko bertsiotan ikusiko dira, gaztelaniazko edo euskarazko azpituluekin.

Programa osorik proiektatuko da Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean, eta Donibane Lohitzunen, berriz, *Docteur folamour*, *Un homme d’exception* eta *Les dents de la mer* ikusi ahal izango ditugu.

Honako zientzialari hauek egingo dituzte aurkezpenak eta solasaldiak: José Ramón Alonso (Salamanca Unibertsitatea); Carmen Garde (Biodonostia, Donostiako Ospitale Unibertsitarioa) eta Julio Arrizabalaga (Biodonostia, Donostiako Ospitale Unibertsitarioa) medikuak; María Blanco (UPV/EHU, DIPC), Igor Campillo (Euskampus Fundazioa), Ricardo Díez Muiño (DIPC, CSIC, UPV/EHU), Pedro Miguel Etxenike (DIPC, UPV/EHU), Mercedes Vila (Biotech Foods), Nerea Zabala (UPV/EHU, DIPC), Daniel Zerzion (DIPC, CERN) eta Amaia Arregi (DIPC) fisikariak; Bernard Bru (UPV/EHU, BCAM) matematikaria-fisikaria; Paula Gordaliza (BCAM, UPNA) eta José Antonio Lozano (BCAM, UPV/EHU) matematikariak; Montse Hervella (UPV/EHU), Conchi de la Rúa (UPV/EHU) eta Juan Ignacio Pérez Iglesias (DIPC, UPV/EHU) biologoak; Janire Prudencio (Granadako Unibertsitatea), Juana Vegas (IGME-CSIC) eta Asier Hilario (Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea) geologoak; Elisa Jimenez-Izal (DIPC, UPV/EHU) eta Fernando Cossio (UPV/EHU, Ikerbasque) kimikariak; eta Marta Olazabal (BC3, Ikerbasque) ingurumen-ingeniaria.

## **BESTE JARDUERA BATZUK**

Era berean, zikloak bi hitzaldi ere programatuko ditu, Kutxa Kultureko (Tabakalera) Ruiz Balerdi aretoan. Hitzaldiak Kutxa Fundazioarekin elkarlanean antolatu dira, eta izenburu hauek dituzte: *Bizitza aldatzen duten sumendiak* (Juana Vegas, IGME-CSICeko geologoa, Geoheritage, IUGS) eta *Elkarrizketa banpiroarekin neurozientziaz* (José Ramón Alonso, Salamancako Unibertsitateko eta Gaztela eta Leoneko Neurozientzien Institutuko neurobiologoa).

Azkenik, eskolentzako goizeko ekitaldiak Donostian, Bilbon eta Gasteizen egingo dira, non *Fire of love* (Sara Dosa, 2022) proiektatuko baita, euskaraz azpitulatuta eta Janire Prudenciok (Granadako Unibertsitatea) eta Asier Hilariok (Euskal Kostaldeko UNESCO, Geoparkea, IUGS) aurkeztuta.

Sarrerak web-orrietan eta Tabakalerako, Artium Museoko eta Arte Ederren Bilboko Museoko leihatiletan (emanaldiak Bizkaia Aretora aldatuko dira museoa eraberritze lanetan dagoelako) erosi ahal izango dira, eta Le Sélect eta Golem-Baiona zinemetako leihatiletan ere bai. Txartel bakoitzaren prezioa 3,50etik 6 eurora bitartekoa da (deskontuak kontuan hartu gabe). Informazio osoa [www.filmoteka.eus-en](http://www.filmoteka.eus-en).

## **LA SEXTA EDICIÓN DEL CICLO CINE Y CIENCIA REIVINDICA EL AMOR A LA CIENCIA A TRAVÉS DE DIEZ PELÍCULAS QUE SE PROYECTARÁN ENTRE ENERO Y MARZO**

**Científicos y científicas de prestigio internacional debatirán con el público en los pases que tendrán lugar en Donostia, Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Pamplona y San Juan de Luz**

La sexta edición del ciclo Cine y Ciencia reivindica el amor a la ciencia a través de diez películas que se proyectarán desde este jueves y hasta finales de marzo. En colaboración con el Donostia International Physics Center (DIPC) y el Festival de Cine de San Sebastián, la Filmoteca Vasca pretende continuar transmitiendo cultura cinematográfica y científica y, para ello, cada pase contará con la presencia de científicos y científicas de prestigio internacional. Tabakalera (Donostia), Bizkaia Aretoa-Sala Mitxelena de la UPV/EHU (Bilbao), Artium Museoa (Vitoria-Gasteiz), Cines Golem (Pamplona) y los cines Le Sélect (San Juan de Luz) acogerán las proyecciones que integran este ciclo.

En la rueda de prensa que ha tenido lugar hoy en Tabakalera (Donostia), han participado el director de la Filmoteca Vasca, Joxean Fernandez, Ricardo Díez Muiño (director del DIPC), Eurne Ormazabal (directora general de Tabakalera) y también el viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco, Andoni Iturbe, y el viceconsejero de Universidades e Investigación, Adolfo Morais Ezquerro.

En palabras de Fernández, en esta edición se va a hablar “de amor al cine y de amor a la ciencia”. “Es la sexta edición de este ciclo. Estamos, por tanto, hablando de más de 200 proyecciones, siempre con presentaciones de más de un centenar de científicas y científicos en hasta cinco ciudades. También se han programado en estos seis años conferencias, sesiones escolares y creo que al terminar esta edición estaremos muy por encima de los 20.000 espectadores en total. En todo ello hay mucho amor al cine y a la ciencia”, ha añadido.

Por su parte, Díez Muiño ha subrayado que la ciencia y el cine son “dos ingredientes esenciales” de la cultura contemporánea. “Cine y ciencia dialogan desde muchas perspectivas y nosotros nos centramos en una de ellas: en proporcionar una mirada distinta, original, desde la ciencia, a grandes películas, al tiempo que recogemos y analizamos la mirada cinematográfica al hecho científico. Llevamos científicos y científicas al cine y acercamos a los cinéfilos y cinéfilas a la ciencia. El éxito y el crecimiento del ciclo durante sus cinco años de vida, medido tanto en términos de público como del interés en contribuir por parte de nuevas instituciones, nos ratifica en la apuesta y nos ha ayudado a preparar, una vez más, un programa muy atractivo”, ha finalizado.

### **PELÍCULAS**

El ciclo Cine y Ciencia proyectará *Fire of Love* (Sara Dosa, 2022), un documental sobre las experiencias de dos vulcanólogos franceses unidos por el amor entre ellos y a los volcanes. El amor a la ciencia y a su familia protagoniza también *Madame Curie* (Mervyn LeRoy, 1943), película que ahonda en los años de investigación de la dos veces premio Nobel polaca. *Drácula de Bram Stoker* (Francis F. Coppola, 1992) muestra el mito del vampiro que transita por el tiempo en busca de un amor imposible. El programa se completa también con clásicos como *El nombre de la rosa* (Jean-Jacques Annaud, 1986) y *La herencia del viento* (Stanley Kramer, 1960), propuestas que muestran cómo sus protagonistas actúan movidos por el amor a la verdad. El amor libre como derecho es el que defiende Tom Hanks en *Philadelphia* (Jonathan Demme,

1993), y el amor de un coronel a los “fluidos corporales americanos” termina en desastre nuclear en *¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú* (Stanley Kubrick, 1967).

El científico y premio Nobel John Nash y su amor obsesivo por las matemáticas inspiraron la película *Una mente maravillosa* (Ron Howard, 2001) y la nostalgia por lo perdido protagoniza, por otra parte, una de las grandes distopías del cine: *Cuando el destino nos alcance* (Richard Fleischer, 1973). Finalmente, el ciclo terminará con un canto a lo animal, a lo salvaje y a lo monstruoso como es *Tiburón* (Steven Spielberg, 1975). Las películas se proyectarán en versión original y con subtítulos en castellano o euskera.

El programa se proyectará íntegramente en Donostia, Bilbao, Vitoria-Gasteiz y Pamplona, mientras que en San Juan de Luz podremos disfrutar de *Docteur folamour*, *Un homme d'exception* y *Les dents de la mer*.

Las presentaciones y coloquios correrán a cargo del neurobiólogo José Ramón Alonso (Universidad de Salamanca); de los médicos Carmen Garde (Biodonostia, Hospital Universitario de Donostia), Julio Arrizabalaga (Biodonostia, Hospital Universitario de Donostia); de las físicas y físicos María Blanco (UPV/EHU, DIPC), Igor Campillo (Euskampus Fundazioa), Ricardo Díez Muiño (DIPC, CSIC, UPV/EHU), Pedro Miguel Etxenike (DIPC, UPV/EHU), Mercedes Vila (Biotech Foods), Nerea Zabala (UPV/EHU, DIPC), Daniel Zerzion (DIPC, CERN) y Amaia Arregi (DIPC); del matemático-físico Jean-Bernard Bru (UPV/EHU, BCAM); de las y los matemáticos Paula Gordaliza (BCAM, UPNA) y José Antonio Lozano (BCAM, UPV/EHU); de las y los biólogos Montse Hervella (UPV/EHU), Conchi de la Rúa (UPV/EHU) y Juan Ignacio Pérez Iglesias (DIPC, UPV/EHU); de las y los geólogos Janire Prudencio (Universidad de Granada), Juana Vegas (IGME-CSIC) y Asier Hilario (Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea); de las y los químicos Elisa Jimenez-Izal (DIPC, UPV/EHU) y Fernando Cossio (UPV/EHU, Ikerbasque); y de la ingeniera ambiental Marta Olazabal (BC3, Ikerbasque).

## **OTRAS ACTIVIDADES**

Asimismo, el ciclo programará también dos conferencias que tendrán lugar en el Sala Ruiz Balerdi de Kutxa Kultur (Tabakalera). Las conferencias, organizadas en colaboración con Kutxa Fundazioa, llevan por título *Volcanes que cambian la vida* (Juana Vegas, geóloga del IGME-CSIC, Geoheritage, IUGS) y *Entrevista con el vampiro sobre neurociencia* (José Ramón Alonso, neurobiólogo de la Universidad de Salamanca y del Instituto de Neurociencias de Castilla y León).

Finalmente, las sesiones matinales dirigidas a centros escolares se celebrarán en Donostia, Bilbao y Vitoria-Gasteiz, donde se proyectará *Fire of love* (Sara Dosa, 2022), subtitulada en euskera y presentada por las y los geólogos Janire Prudencio (Universidad de Granada) y Asier Hilario (Euskal Kostaldeko UNESCO, Geoparkea, IUGS).

Las entradas se podrán adquirir en las páginas web y en las taquillas de Tabakalera, del Museo Artium, del Museo de Bellas Artes de Bilbao (las sesiones de desplazan a Bizkaia Aretoa por las obras en el museo) y de los cines Le Sélect y Golem-Baiona. El precio de cada ticket es de entre 3,50 y 6 euros (sin incluir descuentos). Toda la información en [www.filmoteka.eus](http://www.filmoteka.eus).